



Gaur goizean, Bizkaiko eragile sozialek murrizketa sozialen aurkako prozesioa egin dute Bilbon, nazaretar jantziekin. Mobilizazio honen bidez Lanbideren murrizketa sozialak salatu dituzte, konkretuki lan prekarioa duten pertsonen aurkakoak. Lan prekarioa duten pertsoneri, hiru urte pasatu ondoren prestazio osagarria kentzen die Lanbidek. Gainera kaleratze baten ondoren, gurasoen etxera joan behar diren pertsoneri RGIa ukatzen zaie baita ere.

alt=""

```
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/3x_rLosi-6w','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```

Beste alde batetik Lanbidek prestazioa behar duten pertsonetikiko duen jarrera salatu dute. Lanbidek uste duenean pertsona batek irregulartasunaren bat egin duela, bertan bera uzten dio laguntza defenditzeko aukerarik eman gabe. Gainera pertsona hauek errekurtsioak jartzen dituztenean, Lanbidek 8-12 hilabete ematen ditu kasua aztertzen eta azkenean kasuen %92an laguntza jasotzen duen pertsonari eman behar izaten dio arrazoia. Kasua aztertzen den bitartean pertsona hauek ez dute inolako diru sarrerarik jasotzen. Horregatik eragile sozialek, pertsonen eskubideak errespetatzea exijitzen diote Lanbideri